Bestelako Xedapenak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
INDUSTRIA, BERRIKUNTZA,
MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

787

15/2011 DEKRETUA, otsailaren 8koa, Orduñako Industrialdea SA sozietate publikoa azkentzeko baimena emateko dena.

Apirilaren 14ko 86/1992 Dekretuaren bidez, Industria Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SAri baimena eman zitzaion Orduñako Industrialdea SA sozietate publikoa sortzeko. Sozietate horrek Urduñako udalerrian industria-arloko ekimenak eta inbertsioak sustatzea du helburu; horretarako, bere jabetzeko lursailetan industria-pabilioien konplexu bat eraiki eta kudeatu behar du, berau erabat transferitu arte.

Hala ere, galerak metatu egin zaizkio eta, Orduñako Industrialdea SA likidazioko legezko egoeran dago 2011ko ekitaldian; gainera, sozietateak ezin ditu ordaindu Sprilurrek emandako maileguaren interesak, ezta horren amortizazioak ere. Hori dela-eta, bere Administrazio Kontseiluak sozietatea desegitea-likidatzea proposatu dio Batzar Nagusiari. Hala erabaki zen Administrazio Kontseiluaren 2010eko maiatzaren 6ko bileran.

Eta orain arte esandakoarekin bat etorriz, bidezkotzat jotzen da Orduñako Industrialdea SA sozietate publikoa desegitea; horretarako, Jaurlaritzak dekretua eman behar du, hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 20.3 artikuluan.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko otsailaren 8an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulua bakarra.– Deseginda geratu da eta, baimena ematea Orduñako Industrialdea SA sozietate publikoa azkentzeko, betiere egin beharreko izapideak egin ondoren.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

787

DECRETO 15/2011, de 8 de febrero, por el que se autoriza la extinción de la Sociedad Pública Orduñako Industrialdea, S.A.

Mediante Decreto 86/1992, de 14 de abril, se autorizó a la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A., la creación de la sociedad pública Orduñako Industrialdea, S.A. Su objeto social es estimular y promover la iniciativa y la inversión industrial en el término municipal de Orduña, mediante la construcción de un complejo de pabellones industriales en terrenos de su propiedad, gestionando dicho complejo hasta la total transferencia del mismo.

La situación de pérdidas acumuladas situaría a la Sociedad en el ejercicio 2011 en el supuesto legal de liquidación, además de no poder hacer frente al pago de los intereses del préstamo que tiene concedido Orduñako Industrialdea, S.A. con Sprilur ni a las amortizaciones del mismo, por lo que su Consejo de Administración ha considerado conveniente proponer a la Junta General la disolución-liquidación de la sociedad. Así se acordó en la reunión del Consejo de Administración de fecha 6 de mayo de 2010.

De conformidad con todo ello, se estima conveniente proceder a la disolución de la Sociedad Pública Orduñako Industrialdea, S.A., para cuya extinción se precisa de Decreto del Gobierno, de conformidad con el artículo 20.3 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Economía y Hacienda y de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 8 de febrero de 2011,

DISPONGO:

Artículo único.– Autorizar la extinción de la Sociedad Pública Orduñako Industrialdea, S.A. por disolución de la misma, previo cumplimiento de los trámites pertinentes.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko otsailaren 8an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza
eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos desde el día de su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de febrero de 2011.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

El Consejero de Industria, Innovación,
Comercio y Turismo,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.